

LEÓN XIV.a Aita Santuar en mezua
MIGRATZAILE ET A ERREFUXIATUAREN 111. JARDUNALDI MUNDIALERAKO 2025
2025eko irailaren 28an
Migratzaileak, Itxaropenean misiolari

Anai-arreba maiteok:

Migratzaile eta Errefuxiatuaren 111. Jardunaldi Mundiala eta **migratzaileen eta misiolarien jubileua** batera gertatzea nahi izan zuen nire aurreko Aita Santuak. Egokiera eskaintzen digu honek itxaropena, migrazioa eta misioa arteko loturaz hausnartzeko.

Une honetan, gerrateak, bortizkeria, injustizia eta gertaera meteorologiko muturrekoak nagusi dira, tamalez, munduan. Eta milioika pertsona behartzen dute, beren sorterritik alde egin eta beste tokiren batzuetan babesa bilatzera. Baina nork bere komunitatearen interesak besterik ez zaintzeko joera oso zabalduta dago, eta horrek ezinezkoa bihurtzen du erantzukizunak hartzea, alde bateko eta bestekoen artean lankidetzaz lortzea, denen ona bilatzea eta solidaritate orokorra izatea giza familia osoaren onurarako. Gero eta arma gehiago egiteak, arma berriak asmatzeak –arma nuklearrak ere bai–, gaur egungo krisi klimatikoaren ondorio ezin gaiztoagoak ia kontuan ez hartzeak eta desberdintasun ekonomiko sakonek gero zailago egiten dute oraingo nahiz geroko erronkei aurre egitea.

Dena suntsitua gertatuko dela eta egoera ikaragarriak izango direla dioten teorien aurrean, oso garrantzitsua da gizon-emakume gehienek bihotzean sortu eta garatzea gizaki ororentzako

etorkizun duin eta baketsua itxaroteko desioa. Jainkoaren proiektuak halakoxe etorkizuna nahi du gizadiarentzat eta kreazio osoarentzat. Profetek iragarri eta Mesiasen garaian izango zen etorkizuna da hori: «Berriro eseriko dira adineko gizon-emakumeak Jerusalemgo kaleetan, nork bere makila eskuan, zahararren zaharrez; hiriko kaleak neskato-mutikoz beteko dira, plazetan jolas eta jolas. [...] Izan ere, bakea ereingo dut, mahastiak emango du bere fruitua, lu-



rrak bere ekarria eta zeruak bere ihintza» (Za 8, 4-5. 12). Etorkizun zena etorria da, Jesu Kristok hasia (ik. Mk 1, 15 eta Lk 17, 21), eta guk sinesten dugu erabatekoa izango dela; hala itxaro dugu, Jaunak beti betetzen baititu bere agintzariak.

Eliza Katolikoaren Katiximak

dioenez, «itxaropena deitzen diogun bertutea, Jainkoak gizaki ororen bihotzean txertatu duen zoriontasun-irrika bera da; gizakien jarduerak inspiratzen dituen itxaropena pizten du» (1818. zk.). Zalantzarik gabe, zoriontasunaren bila ibiltzea –eta beste nonbait aurkituko deneko ustea izatea– da gaur egungo gizakiak alde batera eta bestera ibiltzeko arrazoi nagusietako bat.

Migrazioa eta itxaropena arteko lotura garbi azaltzen da gure garaiko migrazio-esperientzia askotan. Migratzaile, errefuxiatu eta deserriratu asko testigu pribilegiatu da egunero bizi duten itxaropena nolakoa den erakusteko, konfiantza Jainkoagan jarriko nola egiten dieten aurre zoritxarrei, etorkizun horretara iristeko, horretan begiztatzen baitute zoriona lortuko dutela eta giza garapen osoa. Israel herriak bizi izan zuen ibiltari-esperientzia bizitzen dute gaurko ibiltariak ere: «Oi Jainko, zeure herriaren gidari atera zinenean, basamortuan zehar zindoazela, dardara egin zuen lurak, urtu egin zen Jainkoaren aurrean zerua, Sinaiko Jainkoaren, Israelen Jainkoaren aurrean. Eurria ugari bota zenuen, oi Jainko, zeure lurralde eta jabegoa indarberitu. Hantxe kokatu zen zure herria; behartsuen ardura duzu, oi Jainko, zeure ontasunean» (68 [67] Sal 8, 11).

Gerrate eta injustiziek goibeldua duten munduan, baita dena galdua dagoela dirudien tokietan, itxaropenaren mezulari gertatzen dira migratzaileak eta errefuxiatuak. Ausartak eta nekaezinak dira, eta horrek gure begiek ikus dezaketena baino haratago ikusten duen fedearen testigu heroiko egiten ditu. Kemena ematen die horrek, heriotzari berari ere aurre egiteko gaur egungo migrazio-bide ezberdinetan. Israel herriak, basamortuan barna, Jau-naren laguntzaz arrisku guztiei aurre eginez zebilela izan zuena bezalako esperientzia ikus daiteke oraingo migratzaileengan ere: «Jaunak libratuko zaitu ehiztarien saretik eta izurri galgarritik. Bere hegaltzean emango dizu gerizpe, haren lumapea izango duzu babesleku, haren besoa babeski eta koraza. Ez diozu beldurrik izango gauaren izuari, ez egun-argitan jotzen duen gaitzari» (91 [90] *Sal* 3-6). Pelegrino dela oroitarazten diote Elizari migratzaileek eta errefuxiatuek, eta betiko aberri-rantz doala gelditu gabe, bertute teologala den itxaropenak eutsirik.

“Sedentarismo” tentazioari amore ematen dion bakoitzean eta civitas peregrina izateari –Jainkoaren herri pelegrinoa zeruko aberri-rantz (ik. San Agustín, *Jainkoaren hiria*, XIV-XVI. Lib.)– uzten dion bakoitzean, Eliza “munduan” izatetik “mundukoa” izatera igarotzen da (ik. *Jn* 15, 19). Lehenbiziko kristau elkarteetan ere izan zen tentazio hau. Hona zer oroitarazi behar izan zion Paulo apostoluak berak Filopoko eliz elkarteari: «Gu

zeruko hiritar gara eta handik itxaro dugu salbatzailea: Jesu Kristo Jauna; Hark antzaldatu du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker» (*Flp* 3, 20-21).

migratzaile eta errefuxiatu katolikoak itxaropenaren misiolari izan daitezke gaur egun onartzen dituzten nazioetan,...

Zehazki esanda, migratzaile eta errefuxiatu katolikoak itxaropenaren misiolari izan daitezke gaur egun onartzen dituzten nazioetan, fede-eskaintza berriak eginez Jesu Kristoren mezua iritsi ez den tokietan edota erlijio arteko elkarrizketak eginez eguneroko bizikidetzan eta denekiko baloreen bila ibiltzean oinarriturik. Izan ere, beren suhertasun espiritualaz eta dinamismoaz biziberritu ditzakete zurrunduak eta nekatuak dauden eliz elkarteak, basamortu espiritualak mendean hartzeko arriskuan dauden elkarteak. Jainkoaren bedeinkapentzat ezagutu eta hartu beharra dago halako migratzaileak gure artean izatea, Jainkoaren graziara irekitzeko egokieratzat, Elizak indar eta itxaropen berria Jainkoagandik har dezan: «Izan arduratsu etxera datozkizuenak hartzeko, horrela jokatzuz, jakin gabe etxean aingeruak hartu zituztenak ere badira eta» (*Hb* 13, 2).

Ebanjelizatze lehen elementua, [san Paulo VI.ak](#) zioenez, testigantza da eskuarki: «Kristau

guztiak dira testigantza hori egitera deituak eta, horrela, denak izan daitezke egiazko ebanjelizatzaile. Burura datorkigu era berezian nolako erantzukizuna duten emigratzaileek, halakoak hartuko dituzten nazioetan» (*Evangeliu nuntianti*, 21). Egiazko missio migrantium da –migratzaileek eginiko misio-lana–. Horretako, prestakuntza egokia izatea ziurtatu behar da y etengabeko babesa, elizen arteko lankidetzaz eraginkorraren ondorio.

Bestalde, migratzaileak onartzen dituzten elkarteak ere izan daitezke itxaropenaren testigu bizi. Itxaropen hori promesa bihurtuko da, bai orain bai gero Jainkoaren seme-alaba ororen duintasuna aitortuko deneko promesa.

Jardunaldi jubilar hau dela eta, Eliza migratzaile eta errefuxiatu guztien alde otoitzean ari delarik, Ama Birjinaren, migratzaileen kontsolatzailearen, babespean jarri nahi ditut bai bidean direnak bai lagun egiten saiatzen direnak, halakoen bihotzean bizirik irau-naraz dezan itxaropena eta lagun egin diezaien mundua eraikitzen, Jainkoaren Erreinuaren araberrakoa izango den mundua, gure ibilaldia burutzean izango dugun egiazko Aberria.

Vatikanoan, 2025eko uztailaren 25ean, Santiago Apostoluaren festaburuan
LEON PP. XIV